



VII SUPER AMARA GABONETAKO KROSA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldeak, eskualdeko atletismo elkarteak, Irungo Udalaren laguntzarekin, **VII. SUPER AMARA GABONETAKO KROSA** datorren 2021ko Abenduaren 18an 16h45 etatik aurrera antolatuko du.

Ekitaldiaren barruan bi lasterketa mota antolatuko dira: haurrentzako lasterketak Luis Mariano inguruan eta Irungo erdigunetik igarotzen den 5 kilometroko lasterketa herrikoa.

COVID-19aren AURKAKO PROTOKOLOA, musukoaren erabilerari, higiearen eta distantziari buruzko neurriei dagokionez, osasun-egoeraren bilakaerari eta agintari eskudunek une bakoitzean ezarritako jarraibideetara egokituko dira.

2. ARTIKULUA: PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa nahi duenak parte hartzeko zabalik dago, kategoria, genero edo nazionalitate bereizketarik gabe, atleta federatua izan ala ez.

Gehieneko parte-hartzaile kopurua **1.000koa** izango da.

Korrikalari bakoitzak lasterketan bere ardurapean eta proba mota honi aurre egiteko behar adinako egoera fisikoa egiaztatuz parte hartuko du.

3. ARTIKULUA: IZEN-EMATEA

Inskripzioak urriaren 18an, 12h00 etan irekiko dira. Izen-ematearen balioa dataren arabera aldatuko da, honela:

- **10€** (Euro solidario bat barne), 2021/11/30 baino lehen egindako izen-emateentzat.
- **13€** (Euro solidario bat barne) izen-ematea 2021/12/01-tik 2021/12/17-ra, biak barne, egindakoentzat.
- **20€** (Euro solidario bat barne) izen ematea, 2021/12/18an bertan eginez gero.

Taldeen izen-emateak doan izango da. Taldeak gizonetakoak, emakumetakoak edo mistoak izan daitezke. Genero bat baino gehiagoko kideek osatzen duten taldea mistotzat joko da.

3.1: BANAKAKO IZENA EMATEKO MODUA

Izena emateko epea urriaren 18an, 12h00 etatik aurrera www.kirolprobak.com web gunean hasiko da. On-line izena emateko aukera abenduaren 17an (21h00tan) amaituko da. Hala ere, lasterketaren egun bertan, Luis Marianon kokatutako irteera gunean, izen-emateak ahalazkoak izango dira.

Pertsonalki Bidasoa Atletiko Taldeko bulegoetan, Leandro Agirretxe plazako 1 zenbakian, 2en solairuko, 8.en bulegoan (Palmera Montero eraikinean) kokatuta, izena emateko aukera ere egongo da. Ordutegia astelehenetik ostiralera 9h00tik 14h00ra izango da.

3.2: TALDEEN IZENA EMATEKO MODUA

Taldeak 4 parte-hartzailekoak izango dira gutxienez. Halaber saria 4 lagunentzat izango da soilik. Taldekide guztiak banaka izena eman ondoren talde bezala izena eman beharko dute. Aurrez aurre edo eta batatletismo@gmail.com helbidera elektronikora mezu bat bidaliz egingo ahalko da, betiere taldearen izena eta taldekide bakoitzaren izen-abizenak adieraziz. Izen emateko azken eguna abenduaren 17ko 21h00etan izango da.

4. ARTIKULUA: DORTSAL-TXIPAK JASOTZEKO MODUA

Abenduaren 17ko (ostirala) 00:00ak baino lehen egindako izen emate guztientzako, horretarako Palmera Montero eraikinean (Leandro Agirretxe plaza, 1) prestatutako areto batean lasterkariaren poltsa honako egun eta ordutegi hauetan jasotzeko aukera eskainiko da:

ABENDUAK 17, OSTIRALA 17h00-tik 21h00-ra

ABENDUAK 18, LARUNBATA 10h00-tik 12h30-ra

Dortsal-txipa jasotze arren, bai formatu digitalean, bai paperean inprimatutako QR kode batez hornitutako izen ematearen egiaztagiria azaltzea gomendatzen da. Bestela, nahitaezkoa izango da NANA edo argazkia duen nortasun-agiria bat aurkeztea dortsal-txipa hartzeko. Beste pertsonen dortsal-txipak jaso ahal izateko, izen-emate-egiaztagiria aurkeztea derrigorrezkoa izango da. Izen-ematearen egiaztagiria inskripzio-prozesuan zehar emandako posta elektronikoa jasoko da.

Abenduaren 16a, osteguna, ostean eginiko izen-emateetan, lasterkariaren poltsa zuzenean lasterketa egunean, irteera gunean, 14h30-tik 16h30-ra, jasoko dute parte-hartzaileak. Palmera Montero eraikinean dortsal-txipak jasotzeko erabilitako identifikazio-modu berbera izango da.

Indarrean dauden neurri sanitarioak errespetatzea derrigorrezkoa izango da ere dortsalak jasotzeko unean.

5. ARTIKULUA: LASTERKARIAREN POLTSA

Lasterkari guztiek jasoko duten poltsan ondorengo hauek egongo dira: dortsal- txipa, lasterketako elastiko tekniko eta ezuzteko opari bat.

6. ARTIKULUA: DESKALIFIKATUA IZATEKO ARRAZOIAK

Bai irteeran eta helmugan denbora jasotzeko oinazpikoak izango dira. lasterkari guztiek bi puntu hauetatik nahitaez pasa beharko dute. Lasterkariak honako kasuetan automatikoki deskalifikatuak izango dira:

- Ibilbide osoa burutzen ez badute.
- Dortsaleko publizitatean aldaketak egiten badituzte edo hura ezkututzen badute.
- Beste parte-hartzaile bati egokitutako dortsala eramaten badute.
- Edizio honetako dortsala jantzita eramaten ez badute.
- Dortsalik gabe helmugaratzen badira.
- Epailen edo Antolatzaileen jarraibideei kasurik egiten ez badiete.
- Gogorarazten da, erabat debekatuta dagoela zirkuitu barruan antolatzaileenak ez diren ibilgailu motordunekin edo bizikletekin sartzea.

7. ARTIKULUA: PARTE-HARTZAILEEN ASEGURUA

Antolakuntzak, indarrean dagoen legeriaren arabera, erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat izango du. Era berean, ofizialki inskribatutako parte-hartzaile guztiak istripu-aseguruaren poliza batez estalita egongo dira. Poliza horrek proba garatzearen ondorioz gertatzen diren istripuak estaliko ditu, eta inoiz ez ezkutuko pairamen edo tara baten, zuhurtziagabekeriaren, zabarkeriaren, legeak eta erregelamenduaren artikulua ez betetzearen ondorio gisa gertatutakoak. Lasterketa egiten den lekura eta bertatik egindako joan-etorrietan gertatzen direnak ere ez dira estalita egongo.

8. ARTIKULUA: SOROSPEN MEDIKOA

Sorospen medikoa egongo da ibilbide osoan zehar. Helmugan ere sorospen medikoa egongo da.

Antolakuntzak, proba baino lehen, mediku azterketa bat egitea gomendatzen die lasterkariei; era berean, parte-hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du kirola egiteak dakarren arriskua.

9. ARTIKULUA: SARIAK

1go gizonezkoa eta emakumezkoa	Garaikurra + Super Amarako erosketa txkeea: 200€
2en gizonezkoa eta emakumezkoa	Garaikurra + Super Amarako erosketa txkeea: 100€
3en gizonezkoa eta emakumezkoa	Garaikurra + Super Amarako erosketa txkeea: 50€
4en eta 10 en gizon eta emakumeen artekoak	Garaikurra

Lehenengo 3 koadrilentzako: gizonezkoak, emakumezkoak eta mistoak. 4 pertsonentzako afariak. Koadrilen sailkapena talde bakoitzeko lehenengo sailkatutako 4ren postuak batuta egingo da eta postu txikienetik handienara ordenatuko dira. Berdinketa gertatzen bada, helmugan sartzen den 4.ak daukan posturik onenak irabaziko du.

Gizonezkoen, emakumezkoen eta talde mistoetako lehen 3 taldeentzat: 4 lagunentzako afariak.

Taldeakako sailkapena egiteko, talde bakoitzeko lehen 4 kideek lortutako postuak batuko dira, eta postuen batura txikienetik handienara ordenatuko da. Berdinketa gertatuz gero, laugarren kidea ondoen sailkatzen duen taldeak irabaziko du. Talde mistoen kasuan, postuak zenbatzerakoan, puntuatzen duten 4 postuen artean nahiaez genero desberdineko partaideak egon beharko dira.

10. ARTIKULUA: DUTXATZEKO, ARROPA JASOTZEKO ETA APARKATZEKO ZERBITZUAK

Dutxak eta aldagelak irteera eta helmuga gunearen inguruan aurkitzen den Artaleku kiroldegikoak izango dira.

Arropa jasotzeko eta kontsignatzeko zerbitzua egongo da helmugatik 50 metrora, Luis Marianon. (Planoa ikusi).

Autoz bertaraten direnei parking hauetakoren bat erabiltzea gomendatzen diegu: Irungo La Salle (doakoa), San Juan Plaza, Ficoba (doakoa) edo Colón Ibilbidea.

11. ARTIKULUA: IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUEN LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek lasterketan izena ematen duten momentutik aurrera araudi hau onartzen dute, eta Bidasoa Atletiko Taldeari baimena ematen diote, soil-soilik kirol, promozio edo merkataritza xedearekin, berak edo bitarteko beste entitateek partaideen datu pertsonalen nahiz proba barreneko euren irudiaren erabilera informatikoa egiteko (argazki, bideo eta abarren bidez).

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoak ezartzen duenaren arabera, parte-hartzaileak eskubidea du fitxategi horiek eskuratzeko, betiere bertako edukia partzialki edo guztiz zuzentzeko edo baliogabetzeko xedez. Eskubide hori gauzatzeko, idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldearen egoitza sozilean. (Ramon Iribarren kalea, 4 – behe solairuko atzealdea, 20304 Irun).

Aurreikusita ez dagoen ororako World Athletic-eko araudia kontutan hartuko da.

12. ARTIKULUA: INFORMAZIO GRAFIKOA

Esteka honetan ibilbideari eta erantsitako guneei buruzko eguneratutako informazio zehatza eskuragarri dago:

<https://www.google.com/maps/d/edit?mid=18Irl1I02j25rX7Fj2g6nD4ExSheqDQgK&usp=sharing>